

Grina betea

'HOGEITA LAU ORDU EMAKUME BATEN BIZITZAN'

Izenburua. *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan*. Jatorrizko izenburua. *Vierundzwanzig Stunden aus dem Leben einer Frau*. Egilea. Stefan Zweig. Itzultzailea. Edorta Matauko. Argitaratze urtea. 2007. Argitaletxea. Igela.

A. IRIZAR

STEFAN Zweigen *Emakume ezezagun baten gutuna* argitaratu zuen orain bi urte Igela argitaletxeak, eta orain, berriz, autore austriarraren beste lan bikain hau ekarri digu, *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* hain zuzen; obra biak ere Edorta

Matauko itzultzaile arabarrak ekarri ditu euskarara.

Liburuen jatorrizko bertsioren artean ere bi urteko tartea izan zen, lehenbizikoak 1927an ikusi baitzuen argia eta besteak, aldiz, 1929an. Egia esateko, Zweig idazle oso ezaguna izan zen Europan bi mundu-gerren arteko garaletan, eta, sasoi hartan famatu ziren bere kerako beste idazle batzuen modura, Sándor Márairen antzera esaterako, bigarren loraldi moduko bat izaten ari da autore hau ere. Egia esateko, ez da harrizkoa Europaren erdialdeko autoreok arrakastatsuak gertatzea oraindik. Inperio austrohungariarra

desagertzen ikusiak, bizimodu burgesekoak, giro hori islatzeaz gainera, beren idazlanetan pertsonaren alderdi psikologikoetan arakatzan dute, horretan aurkitzen dute literaturarako gaia, eta horrexek egiten ditu, hain zuzen, klasiko; izan ere, gizakien psikologia, jokabidea, barne-muina hitz batean esanda, beti bera baita, eta misterioz betea baitago inondik ere. Stefan Zweigi dagokionez, gainera, kontuan hartzekoa da harreman estua izan zuela Freud herri-kidearekin.

Urteetan aurrera egindako emakume baten aitortpenak gorpuzten du liburua; kontatzen digu nola,

berrogeita bi urte zituela, jokorako irrikak itsututako mutil gazte batekin topo egin eta hura salbatzeko barne-bulkada izan zuen. Hogeita lau ordu hartzen ditu kontakizunak, izenburuak berak adierazten duenez. *Emakume ezezagun baten gutuna* liburuarekin gertatzen zen modura, laburra baina bizitasun handiko narrazioa dugu *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* hau ere. Ez dago ez gehiegizko deskripziorik, ez elkarrikeria luzerik ezta beharrik gabeko figura literariorik ere, baina ez dago esaterik, ordea, liburua modu soilean edo elkorrean idatzita dagoenik. Aitzitik, gauzak oso

modu bizian eta adierazgarrian ageri zaizkigu kontatuta, eta irudipena dut horixe izango zuela lanik zailena Edorta Matauko itzultzaileak. Hartu dio halere neurria, nik uste, testuak tarteka herrestan baitarama irakurlea, eta pertsonaiak bizi dituen grina beteak liburua irakurtzen ari dena ere hartuko baitu une batzuetan.

Edonola ere, susmoa dut hone-lako bitxi literarioak, sarri askotan, oharkabean joaten direla gure letren ibaian, are gehiago Durangoko urteroko uholdean. Eta pena da, horrelako maisulanak edonorentzat gerta baitaitetzeke gustagarri.